

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZA ETA HEZKUNTZA JARDUNA

Egilea: Irati Etxaniz Mintegia

Zuzendaria: Juan Abasolo

Leioan, 2019(e)ko maiatzaren 28an

A U R K I B I D E A

Sarrera	4
1. Marko teorikoa	5
1.1. Definizioa	5
1.2. Burmuinaren aukerak	5
1.3. Hizkuntza eta komunikazio estiloa	6
1.4. Komunikazio Ez-bortitza & Komunikazio enpatikoa.....	8
1.5. Komunikazioa eta hezkuntza	11
2. Hipotesiak	13
3. Metodologia	13
3.1. Ikerketa txikia	13
3.2. Lagina	14
3.3. Komunikazioa aztertzeke tresna. Inkesta.	14
4. Emaitzak	15
4.1. Ikasleen emaitzak	16
4.2. Irakasleen emaitzak	18
4.3. Emaitzen azalpena	21
5. Ondorioak eta proposamenak	22
6. Erreferentziak	25
 ERANSKINAK	
1.eranskina. Irakasleen komunikazio estiloa aztertzeke inkesta	27
2.eranskina. Ikasleen komunikazio estiloa aztertzeke inkesta	29
3.eranskina. Ikasle eta irakasleen datuen jasoketa taulak	30
4.eranskina. Irakasleen hezkuntza jardunaren komunikazio estiloaren autorregulazio fitxa	33

KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZA ETA HEZKUNTZA JARDUNA

Irati Etxaniz Mintegua

UPV/EHU

Marshall B. Rosenberg psikologoak harremanetarako garaturiko Komunikazio Ez-bortitza (KEB), norbere sakoneko desioekin zerikusia duen prozesua da. Gaur egun hain zabaldua dagoen “gaizki/ongi eredutik” urrunduz, nor bere izateko eran garatzen laguntzen du nor bere buruarekin harremanetan baita besteekin ere. Gatazka egoeretan elkarriketa mantentzeko gonbidapena eskaintzen du, besteekin elkarlaneko irtenbideak aurkitzeko nor bere abileziak garatuz. Ikerketa txiki honetan eskola bateko komunikazio estiloa aztertu da ikasle-irakasleen hartu-emanen komunikazioaren balioaz hausnartzeko eta KEB-era hurbiltzen diren proposamenak eskaintzeko.

Komunikazio Ez-bortitza, hezkuntza, harremanak, sentimenduen adierazpena, gatazken kudeaketa

La comunicación NoViolenta (CNV), del psicólogo Marshall B. Rosenberg desarrollada para las relaciones, es un proceso vinculado con los deseos propios más profundos. Contribuye a desarrollar al individuo en su forma de ser, en relación consigo mismo y en relación con los demás, alejándose del “modelo mal/bien”, que está tan extendido hoy en día. Invita, en situaciones de conflicto, a utilizar el dialogo, con el fin de encontrar soluciones colaborativas con los demás, así pudiendo desarrollar habilidades personales. En esta pequeña investigación se ha estudiado el estilo de comunicación de una escuela para reflexionar sobre el valor de la comunicación entre el alumnado y profesorado para ofrecer propuestas que se acerquen a la CNV.

Comunicación NoViolenta, educación, relaciones, expresión de sentimientos, resolución del conflicto

NonViolent communication (NVC), by physiologist Marshall B. Rosenberg linked to one's deepest desires. This contributes to develop ones self-being, in relation with oneself and the rest of the individuals. This line of thought differs from the “right/wrong model”, so widely spread into nowadays society. This concept encourages us to use dialogue where conflict exists, with the aim to come up with collaborative solutions and, at the same time, to develop personal skills. This research has been carried out at a school where the quality of communication between teachers and students has been observed upon results proposals towards NVC will be put forward.

NonViolent Communication, education, relationship, expression of feelings, conflict resolution

SARRERA

Izaki bizidun guztiok harremanak izateko beharra dugu. Gizakion kasuan, sortzen garen unetik harremanean bizi gara, eta gure nahiak eta beharrak asetzeko komunikatu egiten gara. Egun, gizarte, familia egitura, eta aita-ama rolak aldatuz doaz, baita harreman hierarkikoak ere eta aldaketa guzti horiek eskolan isla dute (Reichert, 2011). Horrekin batera, gizarte aldakor honetan komunikatzeko erak baita komunikatzeko premiak ere aldatuz doaz. Haurrek zentroan ez ohizko jarrerak dituzte, guraso eta irakasleenganako konfrontazioak, agresibitatea, errespetu faltak, hiperaktibitate edota arreta gabezia. Irakasleriaren artean, askotan entzuten da ikasleak muga gabe, balio gabe edo erreferente gabe daudela. Nola bideratu hau? Hori bideratzeko bidea komunikazioa da, irakaste-ikaste prozesua baldintzatzen duelako. Ikasgela barruan elkarreraginean bizi garenez, komunikazioaren bitartez lortu nahi duguna bideratzen dugu. Nolakoa izan behar da beraz ikasgelako komunikazioa? Zer izan behar da kontutuan?

Komunikazio estiloen artean, Marshall B. Rosenberg psikologoak harreman osasuntsuak mantentzeko komunikazio estilo bat proposatzen du *Komunikazio Ez-bortitza (KEB)* izenekoa. Eredu honek, pertsonen arteko (baita norbere buruarekiko) komunikazio enpatikoa eta eraginkorra bilatzen du. Behaketak, sentimenduak, beharrak (desirak, helmugak...) eta eskaerak, norberari zein besteei, zintzotasunez eta argitasunez adieraztearen garrantzia indartzen du, etiketak, aurreiritziak eta hizkuntza ebaluatiboa ekidinez.

Lan honen bitartez, *Komunikazio Ez-bortitzaren aukera* plazaratu nahi da eta eskoletako komunikazio estiloaren azterketa txiki bat egin, komunikazioaren beharraz hausnartzeko eta hezkuntza-hobekuntzarako proposamenak egiteko.

Txosten honetan, komunikazioaren garrantziaz aritzeko, marko teorikoak kontzeptu horren arlo desberdinak jorratuko ditu: definizioa, errealitate desberdinen eragina, gaur egungo komunikazio estiloa, Komunikazio Ez-bortitza eta hezkuntza. Komunikazio estiloaren azterketa egiteko Marshall B. Rosenberg-en teoria eta Sukarrieta Eskola Saiakuntzarako Zentroko (SESZ) autorregulazio dokumentua erabili dira, metodologia atalean azalduta daudenak, hipotesi eta azterketaren azalpenekin batera. Azterketako emaitzak aztertu eta horien arrazoiak eztabaidatu dira emaitzen eta ondorioen atalean. Bukatzeko, hezkuntza hobekuntzarako proposamenak idatzi dira errespetuzko hezkuntza demokratikorantz jarriz fokua.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Definizioa

Komunikazio hitza latineko aurrizkitik cum=batera eta munus=komunikatzaile dator, hortik communis hitza eratortzen delarik “komunitate” edo “elkarrekotasun” esan nahi duena (Fernandez, 1995). Horregatik, Ferre-k (1994) adierazten duen moduan, komunikatzaile gure barruko zerbait konpartitzera iristea da, gizakiaren ezaugarri arrazional eta emozionalak besteekin kontaktuan egotearen beharretik sortzen dena. Prozesu sozial amaigabea da, hitzak, keinuak, begiradak eta espazio interpersonalak integratzen direlarik bertan.

Komunikazioa erabili izan da, historian zehar, elkarrizketa instrumentu bezala, parte-hartze hiritarreko laguntzaile bezala edota gizakiaren garapen jasangarri, kultural eta teknologikoaren bermakuntza egoki gisa. Rizo-k (2004) dionenez, gutxi dira komunikazioak garapenaren eboluzioan bete dezakeen funtzioaz ohartu direnak, eta harrigarria da hezkuntza munduak adierazi duen ezjakintasuna arlo honetan. Hezkuntza eremuko eztabaidetan, komunikazioa, mezuen transmisiorako tresnatzat jo izan da, baina harreman interpersonal bezala ulertu behar da (Rizo, 2004). Komunikazioa interakzio sozialaren oinarria da, gizakiaren kultura eta ezagutza horren bidez garatzen baita. Beraz, gizakien sozializazioaren euskarritzat jotzen da komunikazioa, izaki sozialak garen heinean, bizi guztian lagunduko digun bidelaguntzat hartuta (Rizo,2004).

Gizarte bat hedatzen den heinean, komunikatzeko beharra ere era berean hazten da. Milaka mezu bidali eta hartzen dira egunero informazioa partekatzeko asmoarekin, ikuspuntuak defendatzeko eta konbentzitzeko nahiekin edota ulertzeko gurarekin. Fonseca-k (2005) bere lanean indartzen duen bezala, gizakiontzat helburu horiek lortzeko ahozko komunikazioaren ikaskuntza ezinbesteko erreminta bihurtu da, egunerokotasunean hitz egiteko zein entzunak izateko desioa dagoelako jokoan.

1.2. Burmuinaren aukerak

Hezkuntza munduan gizakiengan nola garatzen den komunikazioa ulertzea ezinbestekoa da. José Antonio Marina (2011) adituak azaltzen duen moduan, burmuinaren funtzioa organismoaren jokabidea gidatzea da, bizi iraupenari eta ongizateari eragiten dioten arazoei irtenbide bat bilatzeko asmoarekin. Burmuina nerbio-sistemako pieza zentrala da sistema endokrinoarekin batera, hormonak (informazio mezulariak) izeneko substantzia kimikoak sortzeaz arduratzen dena. Hauek jarreran eragin zuzena dute eta alderantziz.

Beraz, sistema endokrinoak desio eta motibazio munduarekin erlazio estua mantentzen du, horregatik dauka burmuinean eta jarreran eragina.

Gizakia izaki motibatua da ondo edo gaizki egiten ari den adierazten dioten gidari sistema batzuk behar dituen (Marina, 2011). Horretarako burmuina sari eta zigor sistemekin jaiotzen da, saritzat plazerra eta zigortzat mina sentituta. Antsietatea, etsipena, sorpresa, tristura, amorrua, beldurra, gure beharrak, desioak, proiektuak errealitatean nola dabilzan ebaluatzeko erabiltzen diren sentimenduak dira. Emozioek geneei bide bat zabaltzen die, norbere portaeran eragiteko, bai ongizatera eta biziraupenera begira bai jomugen aukeraketa eta ingurumenarekiko harremani begira. Azkenean esperientzia desberdinek, hezkuntzak eta inguruko baldintzek egiten dute gene batzuk adieraztea edota beste batzuk isilean geratzea (Marina, 2011).

Burmuinaren helburua biziraupena ziurtatzea da, bizi-konstanteak eta ingurumenarekiko harremanak mantenduz lortzen dena. Burmuina zati ezberdinez osatuta dago: zati emozional bat dauka, informazioa bultzatu eta baloratzen duena; beste zati kognitibo bat dauka informazioa harrapatu eta lantzen duena; eta zati betearazlea ekintzak antolatu eta gidatzen dituen proiektu eta planen bidez. Egoera kognitiboek emozioak sor eta modula ditzakete baina aldi berean, kognizioan izan dezakete eragina. Arrazoa ezin daiteke emozio gabe mugitu, baina emozioak arrazoa behar dute bideratuak izateko (Marina, 2011).

Aurretik esandakoa kontuan izanik, Marinak (2011) argi uzten du erlazionatzeko erak, hizkuntzak eta komunikazio estiloak eragin zuzena izango dutela, era bateko edo besteko izakiak garatzeko eta gizarte ereduak sortzeko orduan.

1.3. Hizkuntza eta komunikazio estiloa

Pentsatzea gizakiak duen errekurtso nagusienetariko bat da eta oztoporik handiena nia da (Bono 2000). Gizakiak bere pentsamendua erabiltzen du egoa erakusteko, beti onena izatearen bila. Mendebaldeko pentsamendua analisi, juizio eta eztabaidan oinarritzen dela ere baieztatzen du Bonok (2000). Bi mila urtean eztabaida eraikitzaileak izan dira gizakion oinarri, inongo beste komunikatzeko erarik ezagutu gabe (Bono, 2000).

Marshall B. Rosenberg-ek (2015) aditzera ematen duen moduan, hizkuntza eta komunikazio estiloak dira, norbere buruarekiko eta besteenganako indarkeriazko jarreraz jokatzeraren eramatzen dutenak. Baieztatzen duenez, gaur egungo komunikatzeko erak bortitzak izaten dira eta hitzak, maiz, min eta atsekabea sortzen dute, bai besteengan bai

norberarengan, nahiz eta sarritan hau aintzat ez hartu. Komunikatzeko modu batzuk enpatia-egoeratik urruntzen dute, esaterako epaiketak, konparazioak, erantzukizunaren onarpen ezak eta eskakizunak.

Rosenberg-en (2015:36) hitzetan, epaiketak, norbaiti errua bota, iraindu, etiketak jarri, kritikatu, konparazioak eta diagnostikoak egitean datza. Pertsonak eta euren jokamoldeak epaitzean (ona edo txarra, normala edo anormala, arduratsua edo arduragabea, adimentsua edo ezjakinak), arreta jartzen da akats-mailak sailkatzean, aztertzen eta zehazten, norbere eta besteen beharrizanetan zentratu beharrean.

Epaiketa moralistak eta baliozko epaiketak desberdintzen dira. Baliozko juizioak bizitzan baloratzen diren ezaugarrien inguruan egiten dira, esate baterako, zintzotasuna, askatasuna edota bakearen inguruan. Horiek sinesmenen isla dira eta hauekin bat ez datozen ekintzak behatzean, epaiketa moralistak egiten dira. Indarkeria askoren oinarria-ahozkoa, fisikoa, psikologikoa, bai familia, herrialde, nazio artekoa...-pentsatzeko eran dago, gatazkaren arrazoa aurkariaren jarrera okerrean dagoela pentsatuta eta ez norberaren nahi, desio eta beharrizanetan.

Nor bere ekintzen ardura guztia kanpoko faktoreetan jartzean, besteek egindako ekintzetan, talde presioan, lege edo araudi instituzionaletan, osasun egoeretan... ekintzen erantzukizuna ukatzen da. Gizakiak beraien sentimendu eta ekintza pertsonalen arduradunak dira eta egungo komunikazio jarreraren bidez horrekiko kontzientzia jaisten ari da. Gizakia arriskutsu bihurtzen da, jokabide eta sentimenduen eraginez, arduraren kontzientzia galtze duenean (Rosenberg, 2015: 35-40 eta Torrek berretsita, 2018).

Komunikatzeko jarrera blokeatzen duen beste forma bat da nahiak eta desioak exijentzia forman adieraztea. Eskakizun esplizitu edo inplizitu batek entzuten dagoen pertsona mehatxatzen du, erru eta zigorraren bidez, esandakoa betetzen ez bada. Gizakiak epaiketak, konparazioak, eta exijentziak sustatzen dituen hizkuntza batekin hezituak dira, kontzientzian, sentimenduetan eta beharrizanetan hezituak izan beharrean.

Rosenberg-ek (2015) argi uzten du komunikazio jarrera estilo hau, gizarte hierarkiko edo menderatzaileetan sortzen dela eta aldi berean mantendu ere bai. Egungo gizarte kapitalista, konpetitibo eta lehiakorren ere, estilo bera erabiltzen jarraitzen da. Komunikatzeko, pentsatzeko eta jokatzeko era horrek frustrazioa eta txarto ulertuak ekartzen ditu, baita muturreko kasuetan, amorrua, depresioa, biolentzia emozionala eta fisikoa. Hala eta guztiz ere, egoera berberen aurrean pertsona guztiek ez dute jarrera

berbera hartzen, batzuk era bortitza aukeratzen dute konfliktuei irtenbidea emateko, beste batzuk aldiz ez. Beraz, zer dago horren atzean? Zer faktorek hartzen dute parte erabaki horietan?

- Ikasi den hizkuntza.
- Pentsatzen eta komunikatzen irakatsi den era.
- Ikasi diren estrategiak, norberarengan eta besteengan eragiteko.

Hiru faktore horiek paper garrantzitsua jokatzen dute bizitzako egoera desberdinetan hartzen diren jarrera bortitz edo ez-bortitzetan (Rosenberg, 2005).

Paco Cascón Sorianok (2000), gatazka eta indarkeria nahasteko eta berdindu ulertzeko joera ere badagoela aipatzen du. Indarkeria gatazkatzat jotzen da, indarkeriarik eza gatazkarik gabeko egoeratzat hartzen den bitartean. Gatazkak, liskar edo dibergentzia egoerak, nahiak, beharrak (ukigarriak) edo balio kontrajarrien borrokak dira. Alde bateko gogobetetzeak bestearen gogobetetzea eragozten du. Bi egoera bereizten dira:

- Sasi-gatazkak: Gehienetan gaizki-ulertuak, mesfidantza eta komunikazio txarra izaten dute oinarri.
- Gatazka latenteak: Normalean borroka-tonurik ez dago, alderdi biek ez baitute interes edo balioen kontrajarririk sumatzen, edo aurre egiteko zailtasunak dituzte.

Gatazka premietan oinarritzen den prozesua da (ekonomikoak, ideologikoak, biologikoak...). Premiak ase gabe daudenean sortzen dira eta horiek asetzen direnean konpontzen dira. Gatazkak prozesu positiboak dira. Beraietatik ikasi eta biolentziarik gabeko irtenbideak aurkitzen laguntzen dute, horregatik ulertu behar dira heziketarako eta aldaketa sozialerako prozesuak direla (Cascón, 2000).

1.4. Komunikazio Ez-bortitza & Komunikazio enpatikoa

Marshall B. Rosenberg-ek (2015) aurki ditzakegun komunikazio mota desberdinak aztertuz, komunikazioaren ikuspegi zehatz bat garatu zuen: entzuterakoan eta hitz egiterakoan, sentimendu eta emozioetatik hitz egitera eramaten duena, norberarekin bai besteekin konektatzen duena. Ikuspuntu hori Komunikazio Ez-bortitza bezala izendatzen da (KEB), ez bortitz hitzak Gandhik irudikatzen zuen ideiarekin bat etorriz, gizakiak indarkeriari uko egiten dioenean, modu naturalean adierazten duen enpatia. Komunikazio estilo hau hizkuntzan eta komunikazioaren trebetasunean oinarritzen da, baldintza zailenetan ere, gizatasuna mantentzeko gaitasuna indartuta. Pentsamendua, ideiak berrantolatzeke, adierazteko erak eta besteek nola entzun behar zaien laguntzeko

erabiltzen da. Ohiko erreakzio automatikoen ordeztu, hitzak erantzuna kontziente bihurtzen dira, arretaren oinarria, hauteman, sentitu eta nahi denaren kontzientzian jartzen delako. Hitzak zintzotasunez eta argitasunez adierazteko bidea da, eta aldi berean, besteekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera mantentzen laguntzen du, norbere premia sakonak eta besteak entzuzera iritsiz. Defentsarako jarrera eta indarkeriazko erreakzioak gutxitu egiten dira, errespetua, arreta eta empatia sustatuz (Rosenberg, 2015:22-25 eta Adamson-ek berretsita, 2016).

KEB garatzeko lau pausu zehazten dira. Lehenik eta behin, egoera baten aurrean gertatzen ari dena behatzen da, inolako epaiketarik edo ebaluaziorik sortu gabe. Jarraian, sentitzen dena adierazi. Ondoren identifikatzen diren sentimenduekin lotuta dauden nork bere beharrianak esan eta, azkenik, eskaera zehatz bat egiten da (Rosenberg, 2011). Hona hemen pausuen azalpena:

1. Behaketa: KEB prozesuaren barruan behaketa elementu garrantzitsu bat da. Inolako epaiketa eta ebaluaziorik egin gabe, egoera batean gertatzen ari dena behatzen da. Behaketa hauek ebaluazioekin bateratzen direnean, iristen diren mezuak kritikaz beteta izaten dira eta nahi denaren alderantzizko efektua lortzen da, erresistentzia alegia. Pertsona batek beste bati nola dagoen adieraztean dionean argitasunez eta zintzotasunez egingo dio. Komunikazio ez bortitzak ez du derrigortzen guztiz objektiboak izatera, baina bai iradokitzen du behaketen eta ebaluazioen arteko banaketa bat egitea.

2. Adierazpena: Egoera horren aurrean norbere sentimenduak identifikatu eta adieraztean datza. Garrantzitsua da emozioak adierazteko gaitasuna garatzea, hori egiteak sentimenduei izena emateko eta identifikatzeko aukera ematen duelako, besteekin erraz konektatuz. Esan beharra dago, KEB prozesuak banaketa bat egiten duela sentimenduak adierazten dituzten hitzen eta nolakoak garen adierazten duten hitzen artean. Esaterako, “egoera honen aurrean triste sentitzen naiz” eta “pentsatzen dut egoera honen aurrean baliogabetuta nagoela”. Parekotzat jo daitezkeen arren, lehenengoak sentimenduak eta bigarrenak hausnarketa aipatzen dituzte.

3. Beharrian / Onarpena: Hirugarren pausu honek sentimenduen oinarria zein den onartzea dakar. Komunikazio Ez-bortitzak, besteek esan eta egindakoa, nork bere sentimenduen estimulu eta ez kausa direla ohartzen eta kontzientzia hartzen laguntzen du. Prozesu honek nork bere beharrianekin konektatzen laguntzen du baita arazoaren aurrean horien beharra adierazten ere, “konekta dezagun sentimendua beharrezkin: ... sentitzen naiz, ... behar dudalako”(Rosenberg, 2015:72).

4. Eskaera: Azken pausu honekin bizitza aberasteko nahi dena eskatzean datza. Beharrianak ez daudenean asetuak, behatutakoa, sentitutakoa eta behar dena adieraztean, eskaera zehatz bat egiten da, nork bere beharrianak asetzeko ekintza espezifikoak eskatuz. Eskaera horiek hizkuntza positibo bat erabiliz adierazi behar dira, era negatiboak bestearen erresistentzia ekar dezakelako. Ama batek bere semeari galtzerdiak batzeko eskatzean, zarata egin beharrean sentimenduak eta beharrak adieraziz azaltzen badio bere egonezina desberdina izango litzateke (*galtzerdiak etxetik botata ikustean, amorratuta sentitzen naiz, txukuntasuna niretzat garrantzitsua delako, prest egongo zinateke galtzerdiak logelan edo garbigailuan uzteko?*) (Rosenberg, 2015:90-94).

Behatutakoa, sentitutakoa, behar dena adieraztean eta eskatzean, kontutan izan behar da besteek behatzen dutena, sentitzen dutena eta behar dutena. Komunikazio prozesuaren parte honi “harrera enpatikoa” deritzo (Rosenberg, 2015). Belarriz entzutea gauza bat da, aditasunez entzutea beste bat, baina, burua hustu eta sen guztiarekin entzuten hasten denean, enpatia prozesuan murgiltzen da pertsona.

Askotan, enpatia eskaini beharrean, nork bere ikuspuntua edo sentimenduak azaltzera jotzen du. Enpatiak bere aldetik, arreta guztia bestearen mezuan jartzea eskatzen du, behar duten denbora eta espazioa emanaz adierazteko eta ulertuak izateko. Enpatia mantendu egiten da eta besteei aukerak ematen zaizkie guztiz adierazteko, nork bere arreta emaitzetan edo eskariak asetzean jarri baino lehen. Enpatiak, mundua beste era batera sumatzen laguntzen du (Rosenberg, 2015: 113-115).

KEB-k “autoenpatia” kontzeptuari ere garrantzia ematen dio. Nork bere buruarekin bortitzak izateak, besteenganako enpatia edo errukia sentitzean zailtasunak dakartza Rosenbergen aburuz (2015:151). Exijentziak, konparazioak, ebaluazioak, mugak, egin beharrekoak... jartzen dira norberarengan. Akatsak aukera bezala ulertzeak, pertsona garapen pertsonal batera bideratuko dute. Akatsak egiten direnean, juicio moralistetan gelditu beharrean, duelu eta autobarkamena prozesuak erabil daitezke garapen pertsonal batera iristeko (Rosenberg, 2015:164).

KEB-ean, duelua, nor bere emozio eta ase gabeko beharrianekin konektatzera eramaten duen prozesua da iragandakoen damuez. “Autobarkamena”, norbere beharrak asetzen saiatzean iraganeko jokaera damutu batekin konektatzea da. Jarrerak ebaluatzerakoan, asetu gabeko beharretan oinarrituz ebaluatzen bada, aldatzeko nahia ez dator, amorr, lotsa, errua edo depresiotik, baizik eta, nor bere ongizateari eta besteenei laguntzeko

desiotik. Ikuspegi hori eraginkortasunez aplikatu daiteke komunikazioaren maila guztietan eta hainbat egoeratan, familian, eskolan, harreman intimoetan, haserrealdietan, edozein motatako gatazketan... KEB gaur egun mundu osoan erabiltzen den baliabide baliagarria da gatazka bortitz etniko, politiko edo erlijioso larriei aurre egin behar dieten komunitateentzat. Eskoletan, etxean eta enpresetan aukeratzen hasi den komunikazio estiloa bihurtu da eta hainbat elkarte sortu dira ereduari buruzko informazioa hedatzeko, jendea formatzeko eta laguntza behar duten entitate askori laguntzeko (eskola, enpresa, familia...), besteak beste, Asociación para la Comunicación NoViolenta eta CNV Argentina. Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) Nerea Mendizabal KEB-ko hezitzailearen lana nabarmentzen da eta Espainia mailan Pilar de la Torre eta Helena Adamson.

1.5. Komunikazioa eta hezkuntza

Gaur egun gizartearen kezka handia da emozioen kudeaketa, konfliktuen trataera, harreman osasuntsuak eraikitzea, aukera berdintasuna, gizona eta emakumearen parekidetasuna..... Guzti horien aurrean irtenbide batzuk eskaintzen dira (Ibarguren, 2019). Euskal Autonomi Erkidegoko Hezkuntza Sistemari ere horrela islatzen da. Hezkuntza formalean jaso beharreko konpetentziak komunikazioan dute oinarria. Heziberri 2020-k komunikazioa, konpetentzia guztien berezko osagaitzat jotzen du eta ikaste-irakaste prozesuan zuzenean parte hartzen duela dio (Curriculum Dekretuaren Eranskina, 2015:31). Giza garapenaren funtsezko tresnatzat hartzen da bai alderdi indibidualean bai sozialean. Ikasleak testuinguru zehatz batean bizi dira eta hizkuntzaren bidez, testuinguru fisiko-natural eta soziokultural horretan gertatzen diren premia indibidual eta sozialekin harremanetan, beraien nortasuna eta bizimodua eraikitzen dute. Gizartean ondo bizitzeko, beharrezkoa da nor bera izatea, pentsatzen, ikasten eta komunikatzen jakitea eta besteekin egitea baita ekitea ere. Indarrean dagoen curriculumak (2015:29) argi azaltzen duenez: *“Pentsatzen, komunikatzen, laguntzen, elkarrekin bizitzen eta autonomoa izaten jakin behar da, aldi berean eta bereizi gabe, modu konpetentean jarduteko”*. Komunikazioa kultura sortu, sendotu eta zabaltzen duen tresnatzat definitzen du, gizarteko eragileen eta ingurunearenganako harreman eraikitzaileak izatea sustatuz.

Gainera, gaur egungo komunikazio estiloak ikusita, komunikazio eraginkorraren garrantzia azpimarratu nahi du, horren bidez pertsonak gai izango direlako besteen lekuan jartzeko, elkarbizitza erregulatzeko, elkarrekin lan egiteko eta autonomiaz ikasteko.

Baita entitate eta erakunde askotatik ere, esku-hartze programa desberdinak sortzen ari dira, gaur egun auki ditzakegun arazoei irtenbideak bilatzeko, horren adibide dira “Bizi-ikasi” ekimena (Eusko Jaurlaritza, 2019), “ZutaNI” jolasa (Mendizabal, 2013) edota Adimen Emozionaleko programak (Gipuzkoako Foru Aldundia, data gabe), teknika pedagogiko malguekin eta teknologia berrien txertaketarekin indartzen ari direnak.

“Bizi-ikasi” (2019) eskola jazarpenaren aurkako eta elkarbizitza positiborako ekimena da, hezkuntza komunitatearen konpromisoaren bidez, ikastetxeak biolentziarik gabeko espazioak izatea lortu nahi duena, pertsonen arteko komunikazioaren hobekuntzari emanaz garrantzia. Jazarpenak prebenitzeko eta errotik ezabatzeko gizarte kontzientzia bultzatu nahi da eta komunikazioa egokiaren beharra bultzatu hainbat gatazka ekiditeko.

“ZutaNI” jolasa, KEB-n oinarritzen den joko didaktiko bat da Nerea Mendizabalek (2013) sortutakoa, sentimendu eta beharrekin konektatzen duena elkarrenganako ulermena lantzeko helburuarekin. Joko honen bitartez, sentsazio desberdinak agerian jarriko dira, emozioen inguruan hausnartuko da, adierazten ikasiz eta norbere beharrak zaintzeko ekintzak sortuz, horrela ikasleak sentimenduak eta beharrak adierazten ikasiz eta komunikazio estiloa aberastuz.

Hezkuntza emozionalaren lanketa areagotzen ari den estrategia bat da, ikas-irakas prozesuan bere tokia hartzen hasi dena. Horren adibide da Gipuzkoako Foru Aldundiak (data gabe) egindako Adimen Emozional Programak. Horiek, sentimenduak ez direla arrotzak, gizakiongan tokia dutela, adierazi egiten direla eta ongizatea lortzen laguntzen dutelaren ideia indartzen dute.

Ikusitako guzti horiek komunikazioa dute oinarritzat, baina gaur egun harremanak komunikazio bortitz batekin eraikitzen direla ikusita, hezkuntza sisteman ez litzateke arazo askoren konponbidea izango ...

- 1- Komunikazioaren balioaz hausnartzea?
- 2- Darabilgun komunikazio estiloa aztertzea eta hori bideratzea Komunikazio Ez-bortitz baten erabilerarantz?
- 3- Tresna honen (KEB) erabileraren balioa eskaintzea irakasleriari?

2. HIPOTESIAK

Galdera hauei erantzuna bilatzeko eta Marshall B. Rosenbergen teoria aztertzeke eskoletan ematen den komunikazio estiloa aztertzeke azterketa txiki bat egin da. Horretarako honakoak dira planteatutako bi hipotesiak:

- Harremanak izateke era eta hurren garapen pertsonala kontuan izanda, irakasleek komunikazio enpatikoa garatzeko ekintzak burutzen badituzte, ikasleek autonomoki beraien sentimenduak identifikatu eta adierazteke gaitasuna garatuko dute.
- Irakasleak Rosenberg-ek azaltzen dituen pausuak aurrera eramaten baditu gatazken kudeaketan (behatu objetibotasunez, sentimenduen adierazpena, beharren onarpena eta eskaera kontzientea egitea) ikasleek beraien ikaskideekin gatazken aurrean jarrera horiek garatuko dituzte eta ez jarrera bortitzak.

3. METODOLOGIA

Atal honetan, behin helburua eta hipotesiak ezagututa, horiek lortzeke erabili den prozedura eta tresna azalduko da eta horrekin batera ikerketa txikian parte hartutako ikasle eta irakasle kopurua.

3.1. Ikerketa txikia

Azterketa egiteke metodo kuantitatiboa erabili da. Nahi den azterketa egiteke metodo hau lagungarria eta adierazgarria dela dio Hernández, Fernández eta Baptista-ak (1991), zenbakizko datuak batu, aztertu eta analizatzen dituelako prozedura estatistikokoak erabiliz. Ikerketa mota horren barruan inkestak izan dira erabilitako teknikak. Casas, Repullo eta Donaldo-ek (2003), inkesten garrantzia indartzen dute ikerketa eremuan aplikazio aukera masiboak dituztelako eta gai askoren informazio zabala eskaintzen dutelako aplikazio batean.

Ikas Komunitateak proiektua aurrera eramaten duen Bizkaiko D ereduke ikastetxe publiko bateke erdi zikloa aukeratu da ikerketa egiteke. “Ikaskuntza Dialogikoa” da Ikas Komunitateetan erabiltzen den oinarri metodologikoa.

Ikas komunitateak (1997), berdintasunezke elkarrizketa oinarritzat duen metodologia bat bezala aurkezten du, hori lortzeke hezkuntza prozesuke eragileen alderdi guztiak aztertzeke ikuspegi ireki zein malgu bat planifikatu behar denaren ideia indartuz. Metodologia honen printzipioak teoria hauetan oinarritzen dira:

- Freire-k, hirurogeigarren hamarkadan garatu zuen ikuskera dialogikoan, non elkarriketa eta jarrera kritikoak oinarri bihurtu zituen eraldaketa prozesuak bideratzeko.
- Habermas-ek (1989) komunikazio-ahalmenari buruz garatu zuen teorian, non pertsona guztiak komunikatzeko eta ekintzak sortzeko gai direla frogatzen duen
- Flecha-ak (1997)desberdintasunak gainditzeko planteatzen duen berdintasun ildoan eta testuinguruaren aldaketan.

Ikas komunitateak (1997), bazterketa eta diskriminazioa sortu, garatu edo bultzatzen duten ideiekin ez datorrela bat dio eta harreman osasuntsuak eraikitzeke, heziketa prozesuan eta elkarbizitzan ikasleen eta hezkuntza komunitateko eragileen parte hartze inklusiboa, afektiboa eta errespetuzkoa beharrezkoa dela azaltzen du.

Ikusita, Ikas komunitateetan harremani eta komunikazioari ematen dioten garrantzia, arrazoi horiengatik aukeratu da proiektu hau aurrera ematen duen ikastetxe bat azterketa egiteko.

3.2. Lagina

Ikas komunitateak proiektua aurrera eramaten duen eskola publiko hau Bizkaiko kostaldeko herri txiki batean kokatzen da. 7.192 pertsona bizi dira gizonak emakumeak baino gehiago daude, %4 gehiago alegia. Azken hamarkadan etorkin asko etorri dira herrira bizitzera eta horrek aniztasuna sortzeaz gain, biztanleriaren beherakada gelditu du. Izaera euskalduna duen herria arrantzaile honetako eskola publiko bakarra da eta eskola demokratiko, inklusibo eta kalitatezko bat lortu nahi dute eskola euskaldun eta unibertsala bultzatuz (Plaza, 2018). Ikerketarako, Lehen Hezkuntzako erdi zikloko ikasleak eta irakasleak aukeratu dira:

- **Ikasleak:** 4 ikasgeletan banatuta dauden 8-10 urte bitarteko 91 ikasle (44 ikasle 3.mailan eta 47 ikasle 4.mailan).
- **Irakasleak:** Ikasle horiekin hartu eman zuzena duten 14 irakasle. 6 irakasle 3.mailakoak (3 tutore eta 3 laguntzaile) eta 5 irakasle 4.mailakoak (2 tutore eta 3 laguntzaile) eta talde bietan esku-hartzen duten 3 espezialista.

3.3. Komunikazioa aztertzeke tresna. Inkesta

Inkesta esplikatzaileak (Juaristi, 2003) diseinatu dira, marko teorikoan azaltzen diren teoriak kontuan hartuta, komunikazioaren azterketa egiteke eta planteatutako hipotesiak

baieztatzeko edo ezeztatzeko. Juaristik (2003) dioen bezala, ikerketa honetarako sortu diren galderak zehatzak dira, hipotesien arabera prestatu direlako eta gaiarekin zerikusi zuzena dutelako. Erantzunen alderaketa erosoak izan dadin eta inkestatuek erraz eta bizkor erantzun dezaten, galdera itxiak aukeratu dira, erantzun aukera dikotomikoak jarriz (bai/ez) (Casas, Repullo & Donaldo, 2003). Hori kontuan izanda, ikasleentzat eta irakasleentzat bi inkesta sortu dira. Inkesten artean antzekotasunak bilatu dira inkesta bien galderen arteko erlazioa ziurtatuz. SESZ-ko autorregulaziorako dokumentuan oinarrituta (SESZ, 2016) eraiki dira inkesta, propio, Rosenberg-ek planteatutako (2015: 45-112) Komunikazio Ez-bortitzerako gutxieneko baldintzen inguruko informazioa batzeko.

- **Irakasleen inkesta:** inkestatua gaien kokatzeko, inkestaren hasieran gaiari buruzko informazioa txertatu da. 8 galdera sortu dira, hiru esparrutan banatuta: komunikazio enpatikoa garatzeko ekintzak, elkarbizitza egokia izateko akordioak eta gatazken kudeaketan aurreko jarrera. Ikerketa borobiltzeko gaiari buruzko dudak, iritziak zein oharrak jaso dira (ikusi 1.eranskina).
- **Ikasleen inkesta:** 6 galdera sortu dira hiru esparrutan banatuta: sentimenduak adierazteko ohituren garapena, elkarbizitza eremuan garatzen den sentimendua eta ikaskideekin arazoan aurrean hartzen duten jarrera. Kasu honetan ez da ikasleen iritzi edo oharrak jaso (ikusi 2.eranskina).

Informazioa biltzeko inkesta behin pasatu dira talde guztietan ostiral arratsaldeko azken ordu bietan. Datu batze sinkronikoa egin da maila bitako lau ikasgeletan (Juaristi, 2003). Aste bukaera izanda, ikasleen jarrera oso bizia izaten da asteburua baitago gainean eta zerbait aztertzeke aste guztian gertatutako egoerak dituztenez presente aukera egokia da inkesta pasatzeko. Irakasleentzako inkesta berriz, ostiraleko arratsaldeko orduan baino lehenago pasatu dira. Ostiraletan zikloko bilera dela aprobetxatuz, irakasle guztiei batera pasa zaie inkesta eta beraien oharrak eta iritziak ere jaso dira.

4. EMAITZAK

Emaitzen azterketarako, datuak jaso dira (ikusi 3.eranskina) eta erantzunak bai ikasle bai irakasleen kasuan inkestetan egindako galderen arabera sailkatu dira. Kasu bietan, lehenengoko bi galderetan, taldeen edo irakasleen arteko konparaketa ikusten da eta hirugarren galderan talde edo irakasle bakoitzak gatazken kudeaketan erabiltzen dituzten estrategien arteko konparaketa.

Emaitzak grafikoetan adierazi eta datu horien deskribapena eta analisi estatistikoa egin da. Hezkuntzan eta bestelako gizarte zientzietan ohikoa den %95 esangura maila erabili da, hau da, horrelako emaitzen ausazko probabilitatea (p-balioa) 0,05ekoa izatea (p-balioa<0,05).


4.1. Ikasleen emaitzak

Nola sentitzen zaren adierazteko ohitura duzu?

Lehenengo galderako 4 taldeen emaitza orokorrak, 1. taulan eta 1. irudian ematen dira. Sentimenduak adierazteari buruzko galderan desberdintasunak daude taldeen artean ($X^2=38.674$, $p=0,00000002035$, $p <0,05$). A eta B taldeetako ikasleek gehiagotan erantzun dute sentimenduak adierazteko ohitura dutela C eta D taldekoek baino (1. irudia).

Taula 1. Taldeen arteko desberdintasunak 1. galderan

	A TALDEA 3.maila (23 ikasle)		B TALDEA 3.maila (21 ikasle)		C TALDEA 4.maila (24 ikasle)		D TALDEA 4.maila (23 ikasle)		GUZTIRA (91 ikasle)	
	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	21	91,3	21	100	10	41,7	6	26,1	58	63,7
EZ	2	8,7	0	0	14	58,3	17	73,9	33	36,3



Irudia 1. Nola sentitzen zaren adierazteko ohitura duzu?


1. taulako emaitzen azterketatik ikusten da ia hiru herenek sentimenduak adierazteko ohitura duela. 3. mailako ikasle gehienek sentimenduak adierazteko ohitura dute. 4. mailako ikasleengan ohitura horrek behera egiten du eta D taldean, beherakada nabarmena da taldearen laurdenak soilik sentimenduak adierazteko ohitura duelako.

Gelan zure iritziak, sentimenduak... entzunak direla uste duzu?

Bigarren galderako 4 taldeen emaitza orokorrak, 2. taulan eta 2. irudian agertzen dira. Beraien iritziak, sentimenduak eta abar entzunak diren galderan desberdintasunak daude taldeen artean ($X^2=19.412$, $p=0,0002247$, $p <0,05$). A eta B taldeetako ikasleek gehiagotan aukeratu dute baietza C eta D taldekoek baino (2. irudia).

Taula 2. Taldeen arteko desberdintasunak 2. galderan.

	A TALDEA 3.maila (23 ikasle)		B TALDEA 3.maila (21 ikasle)		C TALDEA 4.maila (24 ikasle)		D TALDEA 4.maila (23 ikasle)		GUZTIRA (91 ikasle)	
	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	18	78,3	16	76,2	12	50	5	21,7	51	56
EZ	5	21,7	5	23,8	12	50	18	78,3	40	44



Irudia 2. Zure iritziak, sentimenduak...entzunak direla uste duzu?


2. taulako emaitzetan ikusten den bezala, ikaslearen erdiak, gelan bere iritziak eta sentimenduak entzunak sentitzen direla baieztatzen dute. Orokorrean, 3. mailako ikasleen hiru laurdenak entzunak sentitzen dira eta D taldeko ikasleak alderantziz, (%78,3) beraien iritziak eta sentimenduak ez direla entzunak uste dute.

Gelakide batekin arazoren bat izatekotan, zein da hartutako jarrera?

A taldea, 23 ikasle: Hirugarren galderako A taldeko emaitza orokorrak, 3. taulan eta 3. irudian agertzen dira. Gatazken aurrean hartutako jarrerari buruzko galderan desberdintasunak daude estrategien artean ($X^2=27.797$, $p=0,000004006$, $p < 0,05$). Arazo baten aurrean hitz egiteko estrategia erabiltzen dela baieztatu dute ia guztiek (3. irudia).

Taula 3. 3. galderako A taldeko desberdintasunak.

	KONPONTZEKO LAGUNTZA		IRAINDUZ, JOZ.. KONPONDU		HITZ EGINEZ		EZER EGITEN	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	8	34,8	4	20,8	20	87	6	26,1
EZ	15	65,2	19	79,2	3	13	17	73,9




Irudia 3. Gelakideekin arazoren bat izatekotan zein da zure jarrera?

3. taulan ikusi ahal den moduan, gelakide batekin arazoren bat izatekotan ia laurdenak irainduz, joz, zarata eginez eta abar konpontzen du eta laurdenak ez du ezer egiten. Ikasleen herenak konpontzeko laguntza eskatzen du eta ia ikasle guztiek arazoak hitz eginez konpontzen dituzte.

B taldea, 21 ikasle: Hirugarren galderako B taldeko emaitza orokorrak, 4. taulan eta 4. irudian agertzen dira. Gatazken aurreko jarrerari buruzko galderan desberdintasunak daude estrategien artean ($X^2=28.743$, $p=0,000002536$, $p < 0,05$). Arazo baten aurrean hitz egiteko estrategia erabiltzen dela baieztatu dute ia guztiek (4. irudia).

Taula 4. 3. galderako B taldeko desberdintasunak

	KONPONTZEKO LAGUNTZA		IRAINDUZ, JOZ.. KONPONDU		HITZ EGINEZ		EZER EGITEN	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	4	18,2	5	23,8	16	76,2	1	4,8
EZ	17	81,8	16	76,2	5	23,8	20	95,2



Irudia 4. Gelakideekin arazoren bat izatekotan zein da zure jarrera?


4. taulan ikusi ahal den moduan, gatazkek ia guztiek irakaslearen laguntza gabe konpontzen dituzte eta ia laurdenak jo, iraindu edo zarata eginez. Ehuneko handi batean

arazo bat izatekotan zerbait egiteko jarrera hartzen dute eta ia gehienek hitz eginez konpontzen dituzte.

C taldea, 24 ikasle: Hirugarren galderako C taldeko emaitza orokorrak, 5. taulan eta 5. irudian agertzen dira. Gatazken aurrean harturiko jarrerei buruzko galderan ez dago ezberdintasunik estrategien artean ($X^2=2.468$, $p=0,4811$, $p >0,05$).

Taula 5. 3.galderako C taldeko desberdintasunak

	KONPONTZEKO LAGUNTZA		IRAINDUZ, JOZ.. KONPONDU		HITZ EGINEZ		EZER EGITEN	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	12	50	14	58,3	9	37,5	10	41,7
EZ	12	50	10	41,7	15	62,5	14	58,3




Irudia 5. Gelakideekin arazoren bat izatekotan zein da zure jarrera?

Gelakide batekin arazoren bat izatekotan, 5. taulako emaitzen azterketa eginda, taldearen erdiak irainduz, joz edo zarata eginez konpontzen ditu eta erdiak baita irakaslearen laguntza eskatzen du. 5. irudian ikustenenez, herenak soilik aukeratzen du hitz egiteko jarrera eta ia erdiak arazoaren aurrean ez du ezer egiten.

D taldea, 23 ikasle: Hirugarren galderako D taldeko emaitza orokorrak, 6. taulan eta 6. irudian agertzen dira. Talde honetan arazoaren aurrean hartutako estrategien artean desberdintasunak daude ($X^2=19.462$, $p=0,0002194$, $p >0,05$). Gatazkek irainduz, joz, zarata eginez... konpontzen dituztela baieztatzen dute ikasle askok (6.irudia).

Taula 6. 3.galderako D taldeko desberdintasunak

	KONPONTZEKO LAGUNTZA		IRAINDUZ, JOZ.. KONPONDU		HITZ EGINEZ		EZER EGITEN	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	7	30,4	19	79,2	6	26,1	8	34,8
EZ	16	69,6	4	20,8	17	73,9	15	65,2



Irudia 6. Gelakideekin arazoren bat izatekotan zein da zure jarrera?

6. taulako emaitzen azterketan ikusten da ikasleen laurdenak hitz egiteko aukera duela gatazkei irtenbidea bilatzerakoan eta hiru herenek baino gehiagok irainduz, joz, zarata eginez... konpontzen duela. Irakaslearen laguntza ikasleen herenak eskatzen duela ikusten da eta ia hiru herenek gatazken aurrean ez dutela paso egiten baieztatzen dute.


4.2. Irakasleen emaitzak

**Ikasleek komunikazio enpatikoa garatzeko honako ekintzak garatzen dira?
(Norbere sentimenduak identifikatzeko; norbere sentimenduak adierazteko eta
besteen sentimenduak identifikatu eta ulertzeko ekintzak)**

Lehenengo galderako irakasleen emaitza orokorrak, 7. taulan eta 7. irudian ematen dira. Komunikazio enpatikoa garatzeko ekintzei buruzko galderan irtendako emaitzak ez dira esanguratsuak ($X^2=5.8667$, $p=0,05322$, $p > 0,05$). Guztira irakasleen erdiak sentimenduak identifikatu, adierazi eta enpatia garatzeko ekintzak egiten dituela baieztatzen dute (7. irudia).

Taula 7. Irakasleen arteko desberdintasunak 1. galderan

	3.mailako irakasleak (6 irakasle)		4.mailako irakasleak (5 irakasle)		Especialistak (3 irakasle)		GUZTIRA (14 irakasle)	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	5	83,3	2	40	0	0	7	50
EZ	1	16,7	3	60	3	100	7	50



Irudia 7. Komunikazio enpatikoa garatzeko ekintzak egiten dira?


7. taulako emaitzen azterketan ikusten da 3. mailako ia irakasle guztiek gauzatzen dituztela ekintzak eta 4. mailan erdiak baino gutxiago. Bi geletan berdinak diren espezialistek ez dute horrelako ekintzarik gauzatzen. 3. mailako irakasleak esanda, arlo guztietan saiatzen dira ekintzak txertatzen baina 4. mailakoak hezkidetzaz ikasgaiak bakarrik (irakasleen ohar guztiak ikusteko, 3. eranskina irakasleen taulak).

Gelan elkarbizitza eta komunikazio egokia izateko era demokratikoan adostutako irizpide edo akordiorik jasotzen da?

Bigarren galderako irakasleen emaitza orokorrak, 8. taulan eta 8. irudian ematen dira. Elkarbizitza eta komunikazio egokia izateko akordioaren inguruko galderan desberdintasunak ikusten dira emaitzen artean ($X^2=8.5556$, $p=0,01387$, $p < 0,05$). Ia irakasle guztiek gelan elkarbizitza egokia izateko era demokratikoan adosten direla irizpideak baieztatu dute (8. irudia).

Taula 8. Irakasleen arteko desberdintasunak 2. galderan

	3.mailako irakasleak (6 irakasle)		4.mailako irakasleak (5 irakasle)		Especialistak (3 irakasle)		GUZTIRA (14 irakasle)	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	6	100	5	100	1	33,3	12	85,7
EZ	0	0	0	0	2	66,7	2	14,3



Irudia 8. Komunikazio egokia izateko akordio demokratikorik adosten da?


8. taulako emaitzen azterketan ikusi daitekeen bezala espezialisten erdiak ez du akordiorik jasotzen gelan elkarbizitza egokia izateko eta 3. mailan zein 4. mailan irakasle guztiek era demokratikoan adosten dituztela ikusten da. Denek diote kurtso hasieran adosten dituztela baina espezialistek, gelan adosten direnez beraien ez dutela egin behar diote.

Zein da egunerokotasunean agertu daitezkeen gatazken aurreko jarrera?

3. mailako 6 irakasle: Hirugarren galderako 3. mailako irakasleen emaitza orokorrak, 9. taulan eta 9. irudian agertzen dira. Gatazken kudeaketan jarraitutako pausoen datuak adierazgarriak dira ($X^2=12$, $p=0,007383$, $p < 0,05$). Orokorrean, ia guztiek adierazitako lau pausuak jarraitzen dituzte (9. irudia).

Taula 9. 3.galderako 3.mailako irakasleen erantzunak

	Hitz egiteko aukera		Sentimenduak, iritziak... emateko aukera		Besteen sentimenduak, iritziak... entzuteko aukera		Konpontzeko proposamenak autonomoki erabakitzeko aukera	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	6	100	5	83,3	5	83,3	6	100
EZ	0	0	1	16,7	1	16,7	0	0




Irudia 9. Zein da gatazken aurreko jarrera?

9. taulako emaitzen azterketa eginda, ikusten da guztiek jarraitzen dituztela hitz egiteko aukera pausua eta konpontzeko era autonomoak erabakitzeko pausua. Sentimenduak adierazteko aukera eta besteenak entzuteko pausua ia denek egiten dutela baieztatzen dute. Tutoreek pausoak jarraitzen ahalegintzen direla diote baina laguntzaile batek pausu horiek ez dituela betetzen dio denbora galtzen delako.

4. mailako 5 irakasle: Hirugarren galderako 4. mailako irakasleen emaitza orokorrak, 10. taulan eta 10. irudian agertzen dira. Gatazken kudeaketan jarraitutako pausoen datuak ez dira adierazgarriak ($X^2=2.1818$, $p=0,5355$, $p > 0,05$). Orokorrean, 10. taulako emaitzak ikusita, gatazken aurrean irakasle guztiek ematen dute hitz egiteko aukera eta irtenbidea autonomoki bilatzeko aukera.

Taula 10. 3. galderako 4. mailako irakasleen

	Hitz egiteko aukera		Sentimenduak, iritziak... emateko aukera		Besteen sentimenduak, iritziak... entzuteko aukera		Konpontzeko proposamenak autonomoki erabakitzeko aukera	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	5	100	2	40	2	40	5	100
EZ	0	0	3	60	3	60	0	0




Irudia 10. Zein da gatazken aurreko jarrera?

Ikusten da erdiak baino gutxiagok ematen duela sentimenduak adierazteko eta besteenak entzuteko aukera (10. irudia). Tutoreek diote gatazken aurrean sentimenduei buruz hitz egitea denbora galtze bat dela eta justu ibiltzen direnez denboraz pausu bi horietan salto egiten dute. Laguntzaile batek sentimenduak adierazi beharrean iritziak bakarrik adierazteko aukera ematen diela dio.

3 espezialista: Hirugarren galderako espezialisten emaitza orokorrak, 11. taulan eta 11. irudian agertzen dira. Galdera honi erreferentzia egiten dioten emaitzak adierazgarriak dira ($\chi^2=8.5714$, $p=0,03557$, $p <0,05$). Osotasunean ikusten da ez dietela ikasleei sentimenduak adierazteko eta besteenak entzuteko aukerarik eskaintzen (11. irudia).

Taula 11. 3. galderako espezialisten erantzunak

	Hitz egiteko aukera		Sentimenduak, iritziak... emateko aukera		Besteen sentimenduak, iritziak... entzuteko aukera		Konpontzeko proposamenak autonomoki erabakitzeko aukera	
	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	3	100	0	0	0	0	3	100
EZ	0	0	3	100	3	100	0	0



Irudia 11. Zein da gatazken aurreko jarrera?

Egunerokotasunean gatazken aurrean hirurek ematen dute hitz eta proposamenak autonomoki bilatzeko aukera beste bi pausuetan salto egiten dute. Ikasgai askotan ematen denez sentimenduei buruz hitz egitea, ez dute beharrekoa ikusten beraien ikasgaietan holako ekintzak egitea.

4.3. Emaitzen azalpena

Erantzunen emaitzetan ikusitako desberdintasunak esanguratsuak dira taldeen artean, bai emozioak adierazterako orduan bai arazo baten aurrean hartzen duten jarreraren. 3. mailen eta 4. mailen artean desberdintasunak nabariagoak dira.

Hirugarren mailetan lan egiten duten taldearen erreferentzako irakasleak, tutoreak eta laguntzaileak, ekintza ugari gauzatzen dituzte emozioak identifikatu, adierazi eta enpatia garatzeko eta beraien ikasleen emaitzetan ikusten da ohitura dutela nola sentitzen diren adierazteko. Honek gatazken aurrean hitz egiteko jarrera hartzera eramaten die eta errespetuzko elkarbizitzak indarra hartzen du 3. mailan.

Laugarren mailan esku-hartzen duten irakasleriak ez duenez ohiturarik horrelako ekintzak burutzeko, ikasleek ez dute sentimenduak adierazteko ohitura eta ahalegintzen direnean ez direla entzunak sentitzen adierazten dute. Gainera gatazken aurrean bortizkeria dute gehienek lehenengo aukeratzat. Hemen ikusten da sentimendu eta emozioak adierazteko

aukera zabaltzearen beharra ikasleek harrera enpatikoa garatzen joateko.

Ikusten da hirugarren eta laugarren mailetako esku-hartzeak desberdinak direla, ekintzak ez dira burutzen maiztasun berdinez. Marinak (2011) argi eta garbi azaltzen du norbere portaeran eragiteko gorputzean emozioek geneei bide bat zabaltzen diela eta esperientzia desberdinek, hezkuntzak eta inguruko baldintzek gene batzuk adieraztea edo ez gertatzen da. Ikusi dezakegu bi mailetan egoera desberdinak bizi direla eta ikasleen jarrerak ere desberdinak direla bizitako errealitatearen arabera. Gainera emaitzen azterketan ikusten da esku-hartzean erabilitako estrategiak eta komunikazio estiloak eragina dutela ikasleen jarreretan Rosenbergekek (2005) azpimarratzen duen moduan.

Hirugarren mailan irakasle eta ikasleen erantzunak ikusita, ikusten da komunikazio ez bortitzak erabiltzen dituen pausuak garatzen direla gatazka baten kudeaketan eta beraien ikasleek hitzezko jarrera hartzen dute arazoaren aurrean. Ikasleak premia sakonak (sentimenduak) identifikatzeko gai direnean indarkeriazko erreakzioak gutxitzen dira eta emaitzetan ikusten den bezala errespetu, arreta eta enpatiazko jarrerak indartzen dira.

Laugarren mailan berriz jarrera bortitza aukeratzen dute arazoa konpontzeko eta ikus daiteke zuzenean esku-hartzen duten irakasleen oharretan arazoaren irtenbideari garrantzi gehiago ematen diotela, arazoaren zergati, sentitutakoari edo irtenbideetara heltzeko bateratasun bati baino. 4. mailako ikasleek bortizkeriara jotzen dute eta ez da gatazkaren alde positiboa nabarmentzen, enpatia-egoeratik urruntzen dira ikasleak (Cascón, 2000).

Lau taldeak konparatuz, ikus daiteke, gelakideekin arazoren bat izatekotan ikasleen herenak irakasleari konpontzeko laguntza eskatzen diola. Hau ikusita, garrantzitsua da irakaslearen autoezagutza, konpromiso eta komunikazio enpatikoa bezalako ereduak garatzea hezkuntza esku-hartzean. Eredua izanda, garrantzitsua da ikaslea trebatzea sentimenduen adierazpen prozesuan, sentimendu eta emozioen ahalduntzea garatzeko, edozein arazo edo gatazken aurrean autonomoki eta gaitasunez aurre egin dezan.

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Azterketa hau ikusita, ondorioak ateratzeko orduan aldagaiak zaindu beharko dira, irakaslearen formakuntza, hurrekin igarotzen duten denbora, haurren errealitate desberdinak... Hala ere, lortu diren emaitza esanguratsuak ikusita, ikerketa honetatik honako ondorioak ateratzen dira:

Batetik, irakaslearen esku-hartzeak ikasleen jarrera baldintzatzen duela eta formulatutako hipotesiak baieztatzen direla. Irakasleek komunikazio enpatikoa garatzeko ekintzak

egiten badituzte hurrek sentimenduak adierazteko ohitura handiagoa dute, nahiz eta irakasleei laguntza eskatu gatazka konpontzen laguntzeko. Bestetik, gatazken kudeaketan Rosenbergen pausuak errespetatzen badira, ikusten da nola ikasleek hitz egiteko jarrera dela erabilitako estrategia. Bistan da, sentimenduak adierazteko ohitura izan arren, asetzeko geratzen diren beharrianak ez direla adierazten gatazken kudeaketan; edo, behintzat, ez dutela ohiturarik. Beraz, Rosenbergekin zehaztutako pausu guztiak betetzen direnik ezin esan; hala eta guztiz ere, sentimenduak adierazteko gaitasunak eta jarrera ez bortitz baten aukeraketak gatazken aurrean, erakusten dute Komunikazio Ez-bortitzerantz hurreratzea dagoela.

Bestetik, ondoriozta dezakegu, kasu honetan ikusten dela komunikazioa garrantzitsua dela hezkuntzan eta komunikazio ez bortitza erabiltzean elkarbizitza egokia lortzen dela, hirugarren mailan arazoaren aurrean hitz egiteko jarrera aukeratuz adibidez.

Azkenik, Ikas komunitateek elkarrizketa eta komunikazioa oinarritzat dute, teoria askok hala esanda, baina praktikan ez da osotasunean ematen. Egia da ikerketa txiki honek ez duela bermatzen komunikazioak izan dezakeen garrantzia bere osotasunean eskolan, baina azterketan irtendako emaitzetan eta irakasleen erantzunetan nabari da erabiltzen den komunikazio estiloak eragin zuzena duela ikasleen komunikazio gaitasunean.

Guzti hau ikusita, Marshall B. Rosenberg-en teoria kontuan izanda eta hezkuntza esku-hartzea aberasteko, hezkuntza publiko demokratikora hurbilpen bat emateko honako proposamenak eskaintzen dira:

1.- Hezkuntza demokratikoa garatzeko hezkuntza esparruan komunikazio enpatikoari behar duen garrantzia ematea. Ikusi den moduan, Heziberri 2020-k indarrez azpimarratzen du komunikazio gaitasunaren beharra eta harreman eraikitzaileak izateko zein elkarbizitza egokia bermatzeko ezinbesteko tresna dela. Nahiz eta komunikazioaz hitz egin, gaur egungo gizartean bortizkeriak duen tokia ikusita hezkuntza esparruan beste era bateko komunikazioa garatzea garrantzitsua da ezarritako modelo hierarkikoa aldatzen saiatzeko (Rosenberg, 2015). Hemen eduki dezake tokia KEB ideiak eta azterketako emaitzak ikusita ondorioztatu daiteke, lau gako nagusi argi izanda gizarte enpatiko bat sortzen lagunduko duen komunikazio estiloa izan daitekeela: ebaluatu gabe behatu, sentimenduak identifikatu eta adierazi, norbere sentimenduen ardura onartu eta norbere bizitza aberasteko eskaera kontzienteak egin.

2.- Marshall B. Rosenberg-en teorian irakasleria formatzea: Aldaketa bat emateko ezagutu beharra dago, beraz irakasleek komunikazio ez bortitzaren formakuntzak izan beharko zituzten erabiltzen den komunikazio estiloaz hausnartzeko eta bertan aldaketak emateko. Komunikazio Ez-bortitzak harreman osasuntsuak eraikitzeke gida eskaintzen du, errespetuzko eta enpatiazko jarrera bultzatuz eta norbere premia sakonak eta besteenak entzuten lagunduz. Garrantzitsua da hezkuntza esku-hartzean egiten denaz kontziente izatea eta horretarako lagungarriak dira formakuntzak eta horien jarraipena.

3.-Irakasleen hezkuntza esku-hartzearen komunikazioaren autorregulazioa sistematizatzea. Irakaslea egunerokotasunean, jarrera desberdinekin, emozioekin baita gatazka anitzekin aurkitzen da eta hauek kudeatu beharra dago Irakasleen jarrerak, harremanek eta komunikazio erak ikasleak baldintzatzen dituzte, orduan autorregulazio fitxak egitea gomendagarria da era objektibo batean norbere esku-hartzeak eta jarrerak analizatzeko eta hobetzen joateko (4.eranskina).

4. Etorkizuneko gizarte komunikazio estilo bateratuaz hausnartzea eta diseinatzea. Gaur egungo gizarte aldakor honetan premia guztiak aldatzen doaz eta beharrezkoa da norbera, ikasleak eta testuingurua ezagutzea eta ongizatea bermatzeko komunikazio estiloaz hausnartzea. Familiak, gizarteak eta hezkuntza sisteman eragina dauka haurren izaeraren formakuntzan beraien pentsatzeko, sentitzeko eta ekiteko jarrera baldintzatuz (Reichert, 2011). Hori horrela izanda, komunikazio estiloa zaindu beharra dago eta komunikazio enpatiko, solidario, inklusibo eta plurala garatu.

5.- Autonomia, erantzukizuna eta zigorraren gaineko hausnarketa egitea. Eskoletan ohikoa da zigorraren erabilera. Zigor bat dagoenean ez da norbere baloreen inguruko hausnarketa egiten, ondorioetan pentsatzen da. Horregatik zigorrak autoestimua mintzen du eta borondatea murriztu. Zigorrak haurraren jokabidea baldintzatzen duela ikusten da. KEB-k, jokabide etiko bat bultzatzen du autonomian eta interdependentzian oinarrituta, ekintzen aurreko norbere ardurak antzeman eta norbere zein besteen ongizateaz kontziente izaten lagunduz. Garrantzitsua izango litzateke ideia horien gaineko ikerketa bat egitea berdintasuneko harreman osasuntsuak bermatzeko.

6.- Azterketa honetatik abiatuta ikerketa sakon bat planteatzea. Azterketa honetan nahiz eta txikia izan argi ikusten da komunikazioa hezkuntza esku-hartzean ezinbesteko tresna dela eta zaindu egin behar dela harreman osasuntsuak eraikitzeke, komunikazio eraginkor bat garatzen hasteko, ikasleek enpatia garatzeko, elkarbizitza erregulatzeko eta autonomiaz ekiteko. Interesgarria izango litzateke ikerketa zabalago bat egitea errealitate

desberdinetako komunikazio estiloak aztertzeko eta gaur egun epaiketak, irainak eta bortizkeriak hartzen duen toki nabarmen hori aldatzen joateko, sentimenduei eta komunikazio enpatiko bati bidea eginez.

6. ERREFERENTZIAK

- Adamson, H. (2016ko urriaren 24a). *Reflexiones sobre dar y recibir*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <http://www.compartirlacnv.com/reflexiones-sobre-dar-y-recibir/>
- Adamson, H. (data gabe). *Compartir la CNV*. Hemendik eskuratua: <http://www.compartirlacnv.com/>
- Asociación para la Comunicación NoViolenta. (data gabe). *Asociación para la Comunicación NoViolenta*. Hemendik eskuratua: <https://www.asociacioncomunicacionnoviolenta.org/>
- Bono, E. (2008). *Seis sombreros para pensar*. Bartzelona: Paidós.
- Casas, J., Repullo, R. eta Donaldo, J. (2003). La encuesta como técnica de investigación. Elaboración de cuestionarios y tratamiento estadístico de los datos (I). *Atención primaria*, 31(8), 527-538. Hemendik eskuratua: <http://www.unidadocentemfyclaspalmas.org.es/resources/9+Aten+Primaria+2003.+La+Encuesta+I.+Cuestionario+y+Estadistica.pdf>
- Cascón, P. (2000). *Educación en y para el conflicto*. [bertsio elektronikoa]. Bartzelona: Universidad Autónoma de Barcelona. Hemendik eskuratua: <http://pacoc.pangea.org/documentos/educarenyparaelconflicto.pdf>
- CNV Argentina. (data gabe). *CNV Argentina*. Hemendik eskuratua: <http://www.cnvargentina.com.ar/>
- Eusko Jaurlaritzak, Ikasgunea. (2019). *Bizikasi*. Hemendik eskuratua: <https://bizikasi.euskadi.eus/eu/>
- Eusko Jaurlaritzak. (2015). Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma: 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. Hemendik eskuratua: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_oso.pdf
- Eusko Jaurlaritzak: *Gipuzkoako Foru Aldundiaren materiala*. (Data gabe). Hemendik eskuratua: <http://www.eskolabakegune.euskadi.eus/web/eskolabakegune/material-de-la-diputacion-de-guipuzcoa>
- Fernandez, C. (1995). *La comunicación humana en el mundo contemporáneo*. Mexico: McGraw-Hill
- Ferrer, E. (1994). *El Lenguaje de la Publicidad*. Mexico: S.L. Fondo de Cultura Económica de España.
- Flecha, R. (1997). *Compartiendo Palabras: El aprendizaje de las personas adultas a través del diálogo*. Bartzelona: Paidós.
- Fonseca, M. (2005). *Comunicación Oral*. Hemendik eskuratua: <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=KZAASf370B8C&oi=fnd&pg=PA17&dq=comunicaci%C3%B3n+oral&ots=ctMRUbnG-#v=onepage&q=comunicaci%C3%B3n%20oral&f=false>
- Freire, P. (1995). *Pedagogía: diálogo y conflicto*. Brasil: CORTEZ EDITORA
- Gipuzkoako Foru Aldundia. (Data gabe). *Gipuzkoan emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi*. Hemendik eskuratua:

- https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/bizikasi/bizikasi_ekimena_baliabideak/praktika_onak/adimen_emozionala/adimen_emozionala_gipuzkoa.html
- Habermas, J. (1989). *Teoría de la acción comunicativa*. Madrid: Cátedra.
- Hernández, R., Fernández, C. eta Baptista, P. (1991). *Metodología de la Investigación*. (45-61. or.) Mexico: McGRAW HILL / INTERAMERICANA EDITORES, SA DE C.V. Hemendik eskuratua: https://s3.amazonaws.com/academia.edu.documents/38758233/sampieri-et-al-metodologia-de-la-investigacion-4ta-edicion-sampieri-2006_ocr.pdf?AWSAccessKeyId=AKIAIWOWYYGZ2Y53UL3A&Expires=1558006334&Signature=UhDVld2u71nuwRwu66zrNub5WRQ%3D&response-content-disposition=inline%3B%20filename%3DSampieri-et-al-metodologia-de-la-investi.pdf
- Ibarguen, M. (2019ko urtarrilaren 13an). *¿Qué pasa en la sociedad?*. Gara, 16.or.
- Ikas komunitateak: C.E.P. Artatse, Ramón Bajo, Ruperto Medina eta Karmengo Ama ikastxeak. (1997). Ikaskuntza Komunitateak EAE-n: Guztientzako hezkuntza-erantzuna informazioaren gizaratean. *Red de información educativa*. Hemendik eskuratua: <http://www.redined.mepsyd.es/xmlui/handle/11162/116462>
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak*. Teoria eta adibideak. Gipuzkoa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Marina, J.A. (2011). *El cerebro infantil: la gran oportunidad*. Bartzelona: Planeta.
- Mendizabal, Nerea. (2013). *Zutani*. Hartueman. Hemendik eskuratua: <http://www.hartueman.com/index.php/es/recursos/juego-didactico>
- Plaza, A. (2018). *Lekeitioko kultur eta natur ondareari buruzko eduki-fitxak*. Lekeitioko udala. Hemendik eskuratua: http://www.lekeitio.com/es-ES/Servicios/Cultura/Documents/Ondare_fitxak.pdf
- Reichert, E. (2013). *Infancia, la edad sagrada*. Bartzelona: La Llave.
- Rizo, M. (2004). El interaccionismo simbólico y la Escuela de Palo Alto. Hacia un nuevo concepto de comunicación. *Aula abierta, lecciones básicas*. Portal de la comunicación. Hemendik eskuratua: <http://www.portalcomunicacio.com/download/17.pdf>
- Rosenberg, M. (2005). *El sorprendente proposito de la rabia*. Bartzelona: Acanto.
- Rosenberg, M. (2011). *Resolver los conflictos con la Comunicación NoViolenta*. Bartzelona: Acanto
- Rosenberg, M. (2015). *Comunicación NoViolenta, un lenguaje de vida*. Bartzelona: Acanto.
- Sukarrieta Eskola Saiakuntzarako Zentroa. (2015). *Gure esku-hartzearen erregulazioa gatazken aurrean*. SESZ. Sukarrieta.
- Torre, P. (2018ko urriaren 1a). *Cómo usar la comunicación no violenta en tu vida, Pilar de la Torre, psicóloga*. Aprendemos Juntos. [Bideo-artxiboa]. Hemendik eskuratua: <https://youtu.be/ZjSuHfHF7F4>
- Torre, P. (data gabe). *Instituto CNV*. Hemendik eskuratua: <https://www.comunicacionnoviolenta.com/portada.html>

I. ERANSKINA.

IRAKASLEEN KOMUNIKAZIO ESTILOA AZTERTZEKO INKESTA.

KOMUNIKAZIO EREDUA ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA

Komunikazio estiloen artean, Marshall B. Rosenberg psikologoak harreman osasuntsuak mantentzeko komunikazio estilo bat proposatzen du “**Komunikazio Ez-bortitza**” (**KEB**) izenekoa. Eredu honek, pertsonen arteko (baita norbere buruarekiko) komunikazio *enpatikoa* eta *eraginkorra* bilatzen du. Behaketak, sentimenduak, beharrak (desirak, helmugak...) eta eskaerak, norberari zein besteei, zintzotasunez eta argitasunez adieraztearen garrantzia indartzen du, etiketak, aurreiritziak eta hizkuntza ebaluatiboa ekidituz.

Komunikazio enpatikoa ere deritzon estilo honek, ekintza edota gatazka guztien oinarria, beharrak asetzearen saiakeran dagoela uste du. Guztiok ditugu behar desberdinak (babesa, maitasuna, ulermena, autonomia, jolasa...) eta asetu gabe daudenean gatazka baten aurrean aurkitzen gara, baina horien irtenbidea beldur, lotsa, erru, leporatze edo mehatxuen bidez azalarazi beharrean, enpatiazko jarrerarekin kanalizatzea gomendatzen du. Enpatia bestea esperimentatzen dagoenaren errespetuzko ulermena da. Entzutea ondo dago, baina elkar ulertzea haratago doan gaitasuna da. Komunikazio ez bortitzak lau gako nagusi proposatzen ditu:

- Ebaluatu gabe behatu.
- Sentimenduak identifikatu eta adierazi.
- Gure sentimenduen ardura onartu.
- Norbere bizitza aberasteko eskaera kontzienteak egin.

Heziberri 2020k, komunikazioa, konpetentzia guztien berezko osagaitzat jotzen du eta ikaste-irakaste prozesuan zuzenean parte hartzen duela dio. Komunikazio konpetentzia, oinarrizko zehar-kompetentzia guztietan ageri da eta diziplina barneko konpetentzia guztietan integratzen da. Giza garapenaren funtsezko tresnatzat hartzen da bai alderdi indibidualean bai sozialean. Ikasleak testuinguru zehatz batean bizi dira eta hizkuntzaren bidez, testuinguru fisiko-natural eta soziokultural horretan gertatzen diren premia indibidual eta sozialekin harremanetan, beraien nortasuna eta bizimodua eraikitzen dute. Gizartean ondo bizitzeko, beharrezkoa da norbera izatea, pentsatzen, ikasten eta komunikatzen jakitea eta besteekin egitea baita ekitea ere. Indarrean dagoen curriculumak argi azaltzen du, era konpetentean jarduteko, pentsatzen, komunikatzen, laguntzen, elkarrekin bizitzen eta autonomoa izaten jakin behar dela. Komunikazioa kultura sortu, sendotu eta zabaltzen duen tresnatzat definitzen du, gizarteko eragileen eta ingurunearenganako harreman eraikitzaileak izatea sustatuz.

Gaur egungo eskola emozioen kudeaketa, konfliktoen trataera, aukera berdintasuna, gizona eta emakumearen parekidetasuna... kontuan dituen gizarte eragile bat da. Marshallen aipatutako harreman osasuntsuak eraikiz aldaketarako balioko liguke. Eskolak, komunitateko eragileen arteko harreman dialogikoaren bidez, parte hartze

kritikoa eta aktiboa indartuz, aldaketa bultzatzeko beharrezko tresnak lortzeko aukera zabal lezake. Komunitateko eragileen arteko hausnarketak, komunikazioak eta parte hartzeak aniztasuna ulertzea ekar lezake eta horiek lagundu ahal digute komunikazio ez bortitza indartzen epaiketak eta aurreiritziak ekidinez. Harreman dialogikoa ere Heziberrik nabarmentzen du, gizarte demokratiko bat bultzatzeko ezinbestekoa dela aipatuz.

Idea guzti hauen atzean ikusten da Ikas komunitatearen giltzarria, metodologia dialogikoari ematen baitiote indarra komunitateko eragileen arteko elkarrekintza eta hezkuntza esku-hartze eraginkorra bermatzeko. Talka egiten da bazterketa eta diskriminazioa sortu, garatu edo bultzatzen duten ideiekin eta horretarako, hau da harreman osasuntsuak eraikitze, heziketa prozesuan eta elkarbizitzan ikasleen eta hezkuntza komunitateko eragileen parte hartze inklusiboa eta errespetuzkoa bultzatzen da.

Hau kontuan izanda honakoa izango litzateke, beheko galderak erantzunez ziurtatu nahiko litzatekeen hipotesia: komunikazio enpatikoa garatuz, hau da, ebaluatu gabe behatuz, sentimenduak identifikatuz eta adieraziz, gure sentimenduen ardura onartuz eta norbere bizitza aberasteko eskaera kontzienteak eginez ikasleek komunikazio ez bortitza garatuko dute eta beraien autonomia lortzen eta ekar bizitza egokia lortzen lagunduko die.

GALDETEGIA		
1. Ikasleek komunikazio enpatikoa garatzeko honako ekintzarik garatzen da:		
- norbere sentimenduak identifikatzen ikasteko ekintzak?	BAI	EZ
- norbere sentimenduak ahoz adierazten trebatzeko ekintzak?	BAI	EZ
- besteen sentimenduak identifikatu eta ulertzeko ekintzak?	BAI	EZ
2. Gelan elkarbizitza egokia izateko, eta komunikazio egokia izateko era demokratikoan (irakasle, ikasle...) adostutako irizpiderik edo akordiorik jasotzen da?	BAI	EZ
3. Egunerokotasunean agertu ahal diren txarto ulertu, konfliktu... etabarrez		
- hitz egiteko denbora hartzen da?	BAI	EZ
- ikasleek aukera dute beraien sentimenduak eta iritziak emateko?	BAI	EZ
- ikasleek aukera dute besteen sentimenduak eta iritziak entzuteko?	BAI	EZ
- ikasleek konpontzeko proposamenak eta akordioak autonomoki eraikitze aukera dute?	BAI	EZ

II. ERANSKINA.

IKASLEEN KOMUNIKAZIO ESTILOA AZTERTZEKO INKESTA.

GALDETEGIA		
1. Nola sentitzen zaren adierazteko ohitura duzu?	BAI	EZ
2. Gelan zure iritziak, sentimenduak... entzunak direla uste duzu?	BAI	EZ
3. Gelakide batekin arazoren bat izatekotan:		
- Konpontzeko irakasleari laguntza eskatzen diot.	BAI	EZ
- Irainduz, joz, zarata eginez... konpontzen dut.	BAI	EZ
- Hitz eginez konpontzen dut (neure sentimenduak adieraziz, besteenak entzunez...).	BAI	EZ
- Ez dut ezer egiten.	BAI	EZ

III. ERANSKINA

IKASLE ETA IRAKASLEEN DATUEN JASOKETA TAULAK.

Ikasleen datu taulak:

A TALDEA (23 IKASLE)												
Galderak	1. GALDERA		2. GALDERA		3. GALDERA: GELAKIDEREN BATEKIN ARAZOREN BAT IZATEKOTAN...							
	(Nola sentitzen zaren adierazteko ohitura)		(Gelan Iritziak sentimenduak entzunak diren ustea)		(23 IKASLE)							
	(23 IKASLE)		(23 IKASLE)		Konpontzeko laguntza eskatu		Irainduz, jo, zarata eginez konpondu		Hitz eginez konpondu		Ez dut ezer egiten	
Erantzunak	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	21	91,3	18	78,3	8	34,8	4	20,8	20	97	6	26,1
EZ	2	8,7	5	21,7	15	65,2	19	79,2	3	13	17	73,9

B TALDEA (21 IKASLE)												
Galderak	1. GALDERA		2. GALDERA		3. GALDERA: GELAKIDEREN BATEKIN ARAZOREN BAT IZATEKOTAN...							
	(Nola sentitzen zaren adierazteko ohitura)		(Gelan Iritziak sentimenduak entzunak diren ustea)		(21 IKASLE)							
	(21 IKASLE)		(21 IKASLE)		Konpontzeko laguntza eskatu		Irainduz, jo, zarata eginez konpondu		Hitz eginez konpondu		Ez dut ezer egiten	
Erantzunak	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	21	100	16	76,2	4	18,2	5	23,8	16	76,2	1	4,8
EZ	0	0	5	23,8	17	81,8	16	76,2	5	23,8	20	95,2

C TALDEA (24 IKASLE)												
Galderak	1. GALDERA		2. GALDERA		3. GALDERA: GELAKIDEREN BATEKIN ARAZOREN BAT IZATEKOTAN...							
	(Nola sentitzen zaren adierazteko ohitura)		(Gelan Iritziak sentimenduak entzunak diren ustea)		(24 IKASLE)							
	(24 IKASLE)		(24 IKASLE)		Konpontzeko laguntza eskatu		Irainduz, jo, zarata eginez konpondu		Hitz eginez konpondu		Ez dut ezer egiten	
Erantzunak	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	10	41,7	16	76,2	12	50	14	58,3	9	37,5	10	41,7
EZ	14	58,3	5	23,8	12	50	10	41,7	15	62,5	14	58,3

D TALDEA (21 IKASLE)												
Galderak	1. GALDERA		2. GALDERA		3. GALDERA: GELAKIDEREN BATEKIN ARAZOREN BAT IZATEKOTAN...							
	(Nola sentitzen zaren adierazteko ohitura)		(Gelan Iritziak sentimenduak entzunak diren ustea)		(23 IKASLE)							
	(23 IKASLE)		(23 IKASLE)		Konpontzeko laguntza eskatu		Irainduz, jo, zarata eginez konpondu		Hitz eginez konpondu		Ez dut ezer egiten	
Erantzunak	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	6	26,1	5	21,7	7	30,4	19	79,2	6	26,1	8	34,8
EZ	17	73,9	18	78,3	16	69,6	4	20,8	17	73,9	15	65,2

Irakasleen datu taulak eta jasotako oharra:

ESPEZIALISTAK (3 IRAKASLE)																
	1.GALDERA: KEB garatzeko ekintzak						2.GALDERA: Elkarbizitza/komunikazio egokia izateko era demokratikoa adostutako irizpiderik jasotzen da?		3.GALDERA: Egunerokotasunean agertu ahal diren gatazken, txarto ulertuen... aurrean							
	Sentimenduak identifikatzeko ekintzak		Sentimendua adierazten trebatzeko ekintzak		Besteen sentimenduak identi./ulertu ekintzak				Hitz egiteko denbora hartu		Ikasleek sentimenduak adierazteko aukera		Besteen sentimenduak/iritziak entzuteko aukera		Konpontzeko proposamenak autonomoki eraikitzeko aukera	
	N	%	N	%	N	%			N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	0	0	0	0	0	0	1	33,3	3	100	0	0	0	0	3	100
EZ	3	100	3	100	3	100	2	66,7	0	0	3	100	3	100	0	0

HARTUTAKO OHARRAK/IRITZIAK															
<ul style="list-style-type: none"> - Konfliktuen aurrean gertatutakoaz hitz egiten da eta nola konpondu ahal den galdetzen zaie. Ez da sentimenduei buruz hitz egiten. - Ingelesa: Tutoretza eta hezkidetzak saioetan lantzen direnez sentimenduen adierazpena, identifikazioa... ez da beharrezkoa arlo denetan lantzea. - Gorputz heziketa: Komunikazio egokia izateko irizpideak lehenengo saioan adosten ditugu eta jarrera desegokien aurrean nik ahoz gogoratzen ditut. - Musika eta ingelesa: Ez daukagu adostuta inongo irizpiderik komunikazio edo elkarbizitza egokia izatearen inguruan baina giro egokia mantentzen ez duenak gelan kalera irteten da pentsatzeko nola egon behar den gelan eta hausnartutakoan gelan sartzen da. 															

3.mailako irakasleak (6 IRAKASLE)																
	1.GALDERA: KEB garatzeko ekintzak						2.GALDERA: Elkarbizitza/komunikazio egokia izateko era demokratikoa adostutako irizpiderik jasotzen da?		3.GALDERA: Egunerokotasunean agertu ahal diren gatazken, txarto ulertuen... aurrean							
	Sentimenduak identifikatzeko ekintzak		Sentimendua adierazten trebatzeko ekintzak		Besteen sentimenduak identi./ulertu ekintzak				Hitz egiteko denbora hartu		Ikasleek sentimenduak adierazteko aukera		Besteen sentimenduak/iritziak entzuteko aukera		Konpontzeko proposamenak autonomoki eraikitzeko aukera	
	N	%	N	%	N	%			N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	5	83,3	5	83,3	5	83,3	6	100	6	100	5	83,3	5	83,3	6	100
EZ	1	16,7	1	16,7	1	16,7	0	0	0	0	1	16,7	1	16,7	0	0

HARTUTAKO OHARRAK/IRITZIAK															
<ul style="list-style-type: none"> - Denbora hartzen da gatazken aurrean ikasleek nola sentitzen diren askatasun osoz adierazteko. Prozesu horretan ikasleak bata besteei entzuten daudela bermatzen da bestea ulertzeko asmoarekin (zergatik gertatu da? nola sentitzen da bestea? Zer gertatu zait?) - Gehienbat elkarrekin ikasgaiak egiten dira ekintza horiek baina beste ikasgaietan ere txertatzen dira zeharka: tertulia saioetan norbere sentimenduei buruz hitz egiten da eta besteak entzuten dira; ekintza bat burutzean amaieran nola sentitu diren galdetzeko joera dago; hitz egiten dugunean gu nola sentitzen garen adierazten dugu beraiek adierazteko beldurra kentzeko. - Lehenengo egunetik elkarbizitza egokia eta giro egokia gelan bermatzeko irizpideak adosten ditugu guztiok batera gelan. Kartulina batean idazten dira eta ikasle guztiek sinatzen dute. Kartulina hori gelan itsasten da. - Laguntzaileak: Normalean gatazken aurrean sentimenduak adierazteko eta besteak entzuteko aukera ematen da eta beraiek akordio batera iristea planteatzen da. Gehienetan gatazka bat gertatzen denean parte hartzaileak gelatik ateratzen dira, irakaslea beraien aurrean esertzen da baina ez du ezer esaten, agian bideratzaile lana egiten du. Ikasleek barneratuta daukate prozedura eta gehienetan irakasleak ezer esan gabe hitz egiten hasten dira eta nola sentitu diren adierazten dute gero ea nola konponduko duten esanez. Egia da batzuetan azken pausu honetan guk laguntzen diegula irtenbide posibleak eskainiz. - HIPI: Tutoretza orduan lantzen dituztenez sentimenduen inguruko ekintzak ikasleekin hizkuntzako jarduerak egiten ditut ezarrita ditudan helburuetara iristeko. Gatazkaren bat badago irakasleen artean bakoitzak bere ikuspuntua azaltzeko denbora izaten du baina ez dugu sentimenduen inguruan hitz egiten, jarraian konponbideak proposatzeko aukera ematen zaie edo bestela nik proposatzen dut irtenbidea. 															

4.mailako irakasleak (5 IRAKASLE)																
	1.GALDERA: KEB garatzeko ekintzak						2.GALDERA: Elkarbizitza/komunikazio egokia izateko era demokratikoan adostutako irizpiderik jasotzen da?		3.GALDERA: Egunerokotasunean agertu ahal diren gatazken, txarto ulertuen... aurrean							
	Sentimenduak identifikatzeko ekintzak		Sentimenduak adierazten trebatzeko ekintzak		Besteen sentimenduak identi./ulertu ekintzak				Hitz egiteko denbora hartu		Ikasleek sentimenduak adierazteko aukera		Besteen sentimenduak/iritziak entzuteko aukera		Konpontzeko proposamenak autonomoki eraikitzeko aukera	
	N	%	N	%	N	%			N	%	N	%	N	%	N	%
BAI	2	40	2	40	2	40	5	100	5	100	2	40	2	40	5	100
EZ	3	60	3	60	3	60	0	0	0	0	3	60	3	60	0	0

HARTUTAKO OHARRAK/IRITZIAK
<ul style="list-style-type: none"> - Sentimenduak identifikatu, adierazi eta besteak ulertzeko ekintzak Elkarrekin saioetan egiten dira (Hezkidetza ikasgaietan). Ikasgai horretatik kanpo ez dira horrelako ekintzak gauzatzen denbora faltagatik. Tertulia egiten dugunean ikasleek dituzten iritziak botatzen dituzte baina nahiz eta aukera izan ez dituzte beraien sentimenduak adierazten. - Lehenengo egunetik adostuta daude giro egokia mantentzeko irizpideak. Ikasle guztiek sinatu dute eta itsatsita dago gelan. - Tutore bat: Gatazka bat konpontzeko denbora asko galtzen da sentimenduen inguruan hitz egiten orduan nire kasuan adibidez ikasle bakoitzak gertatutakoa kontatzen du bere ikuspegitik, bien artean entzuten dira eta konpontzeko proposamenak adosten dituzte. Ez badakite nola konpondu nik ematen dizkiet aukerak, beraien bat aukeratu eta saioa jarraitzen dugu. Denbora asko galtzen da sentimenduen inguruan hitz egiten gatazka bat konpontzeko eta gero azken finean ez da ezer lortzen orduan nik pausu horiek jan egiten ditut. Eraitza berdinak lortzen ditut. Gainera badago horren inguruko ikasgai bat "Elkarrekin", beraz bertan jorratzen dira sentimenduen inguruko ekintzak. - 3 laguntzaileek: Nire kasuan gatazken aurrean azaldutako jarrera hartzen dut baina iritziak adierazi eta entzuten dira ez sentimenduak. Ikasleek beraien iritziak azaltzen dituzte eta iritzi guztiak entzutean irtenbideak bilatzen dira. Ez daukat ohiturarik sentimenduen inguruan galdetzeko. Ekintzak beste saio batzuetan garatzen direnez, ez dizkiot ekintza horiek proposatzen tutoreei ezta gauzatzen ere. Desberdinu egiten ditugu sentimenduak eta iritziak beraz aukera horretan ezetz esan dugu iritziak bakarrik ematen direlako orokorrean ez ditugu pausu horiek jarraitzen. -

IV. ERANSKINA

**IRAKASLEEN HEZKUNTZA JARDUNAREN KOMUNIKAZIO ESTILOAREN
AUTORREGULAZIO FITXA**

HEZKUNTZA ESKU-HARTZEAN

1.- Komunikazio enpatikoari zenbateko garrantzia ematen diot?

1	2	3	4
---	---	---	---

2.- Erabiltzen dudan komunikazio eredua enpatikoa da?

1	2	3	4
---	---	---	---

3.- Aurrean dudan pertsonari buruzko aurreiritziak zenbateraino baldintzatzen dute darabildan komunikazio eredua?

1	2	3	4
---	---	---	---

4.- Elkarbizitzako jarrerak erregulatzeko komunikazio enpatikoari indarra ematen diot?

1	2	3	4
---	---	---	---

5.- Ikasleen erantzun bortitz edo desagokiak aurrean zaintzen dut komunikazio eredua?

1	2	3	4
---	---	---	---

6.- Ondorengo estrategiak zenbateko maiztasunez aukeratzen ditut ikasleen erantzun bortitzen aurrean edota jarrera aldaketa bat bultzatu nahi dudanean?

Harreman dialogikoa

1	2	3	4
---	---	---	---

Isiltasuna

1	2	3	4
---	---	---	---

Gelatik ateratzea

1	2	3	4
---	---	---	---

Zigorra

1	2	3	4
---	---	---	---

Mehatxua

1	2	3	4
---	---	---	---

Epaiketa

1	2	3	4
---	---	---	---

8.- Haur bakoitzari espresatzeko bere momentua eskaintzen diot.

BAI	E
	Z

9.- Estrategiarik erabiltzen dut ikasleen arteko **gatatzak** erregulatzeko? Zeintzuk?

1	2	3	4
---	---	---	---

10.- Ikasleen artean arazo bat sortzen denean nola jokutzen dut?

Inplikatu egiten naiz

1	2	3	4
---	---	---	---

paso egiten dut

1	2	3	4
---	---	---	---

Beraien artean konpontzeko esaten diet

1	2	3	4
---	---	---	---

Umekeriak direla pentsatzen dut

1	2	3	4
---	---	---	---

- 11.- Komunikazio enpatikoa bultzatzeko erabiltzen dudana aukera hauen maiztasuna zein da?
 Haurra goraiatzeko

1	2	3	4
---	---	---	---

 Haurra goraiatzeko taldearen aurrean

1	2	3	4
---	---	---	---

 Ikasle guztien iritzia kontutan hartzea

1	2	3	4
---	---	---	---

 Bihotzetik hitz egitea

1	2	3	4
---	---	---	---

 Begirada

1	2	3	4
---	---	---	---
- 12.- Zenbatero erabiltzen dituz honako estrategiak?
 Sentimenduei buruz hitz egin

1	2	3	4
---	---	---	---

 Haur bakoitza ulertu, bere sentimendu eta beharrak kontuan izanik

1	2	3	4
---	---	---	---

 Epaiketak ez egin

1	2	3	4
---	---	---	---

 Autoestimua eta enpatia jolasak

1	2	3	4
---	---	---	---
- 13.- Zenbatero bultzatzen dituz errespetuzko jarrerak (egunon eta eskerrik asko esan, atea jo sartu baino lehen, ...) gelan?

1	2	3	4
---	---	---	---
- 14.- Haur batek duen autoestimua baxua, tristura, gogo eza, ... indartzen saiatzen naiz komunikazio enpatikoa erabiliz?

1	2	3	4
---	---	---	---
- 15.- Eskolako eragileekin (familia, jantokiko langileak, beste irakasleekin...) haur baten jarrera eta egoeratik hitz egiten dut komunikazio eredu bat finkatuz (autoestimua baxua duenez goraiatzeko saiatuko gara, begiratu egingo diogu, esaten duena sinesten saiatuko gara...)?

1	2	3	4
---	---	---	---
- 16.- Arazoen aurrean estrategiak erabiltzen dituz beharrak identifikatzeko?

1	2	3	4
---	---	---	---
- 17.- Erabilitako komunikazio ereduaren autorregulazioa egiten dut?

1	2	3	4
---	---	---	---
- 18.- Ebaluazioan kontutan izaten dut komunikazio ereduaren eragina?

1	2	3	4
---	---	---	---
-